



## Aranzadi, Euskal Herriko katalogo mikologikoa osatzen

Aranzadi Zientzia Elkarteko Mikologia Saila 1965ean sortu zen, eta ordutik, perretxikoen munduaren inguruan lanean ari da. Egun, beraien lan nagusia Euskal Herrian sortzen diren perretxiko guztien ikerketa egitea da. Hala, Euskal Herriko katalogo mikologikoa osatzen ari dira. Uste denez, 6.000-7.000 perretxiko mota daude Euskal Herrian, eta beraiek dagoeneko 3.200 inguru katalogatu dituzte, erdia gutxi gora-behera. Hala, behin perretxikoa bilduta, fitxa bat egiten dute, familia, generoa, euskarazko izena, non eta noiz jaso da goien eta abar bilduz. Era berean, perretxikoaren lagin bat ere gordetzen da. Hori bai, ez pentsa lan erraza dutenik Aranzadiko Mikologia Saila osatzen duten 32-34 bazkide aktiboek; ezin nahi bezain azkar lana bururtu; izan ere, urte osoan 20-30 perretxiko berri aurkitzea arrakasta da. Eta hori, gainera, zuzen-zuzenean perretxiko jakin bat bila dezaketen lekuetara jotzen dutela kontutan izanik.

Era berean, dibulgazio lana ere egiten du Aranzadiko Mikologia Sailak, liburuak, kartelak, erakusketak eta abar kaleratuz. Ildo berean, Donostiako Miramongo Erbide Dorreetan duten egoitza jendearentzat zabalik izaten dute astelehenetan arratsaldeko 19:00etatik 21:30etara. Bertan, astebukaerako perretxiko batzearen ostean zalantzak argitzera doan jendea biltzen da gehienbat. Urtean zehar lau itera egiten dituzte nahi duen guztientzat: bat udaberrian, bi udan eta udazkenena bestea.

### Intoxikazioa kasuei aurre egiteko laguntza

Ekimen horiez gain, Aranzadiko Mikologia Saila ospitaleekin elkarlanean aritzen da, perretxikoekin izandako intoxikazioa kasuei aurre egiteko. Izan ere, oso garrantzitsua da kutsatutako gaixoak zein onddo jan duen jakitea, eman beharreko tratamenduak oso ezberdinak baitira. Intoxikazioak, gainera, uste baino ugariagoak dira, urtero-urtero hainbat kasu izaten direlarik. Iaz adibidez, 70 kasu inguru eman ziren Pilareko Ama Birjinaren zubian; euri asko egin zuen garai hartan, eta azpiarrosa maltzurra asko ugaritu zen. Hori bai, kontutan izan behar da kasuen %90ean intoxikazioek ez dutela eragin arriskutsurik izaten pertsona osasuntsuetan, eta egun pare batean gaixoa ondo jartzen dela. Hala ere, noizean behin kasu arriskutsuak ere badira. Hori dela eta, oso garrantzitsua da ospitalean zein perretxiko jan den ahalik eta azkarren jakitea, hiltzaile berdea (amanita phalloides) edo antzeko perretxiko bat jaten bada, lehen 24 ordutan tratamendua hastea erabakigarria baita. Ondorioz, gaixoaren analisiak eta onddoaren laginak Bartzelonara ikertzera bidali aurretik, aditu batek gaixoak zer jan duen jakin badezake, denbora erabakigarria aurreratzen da.



Itsasertzeko dunetako perretxikoak ikertzen ari da Aranzadi Zarauzko Golflean.

EDURNE KOCH

### Badira oraindik leku onak Euskal Herrian

Azken urteetan perretxiko kopurua Euskal Herrian nabarmen jaitsi den arren, argi dago oraindik ere badagoela basora joan eta perretxiko otarre on batekin etortzerik. Hori bai, horretarako iaioa izan eta ingurune egokitan aritu beharra dago. Hala, pagadiak, hariztiak, izeidiak edota gaztainadiak dira gibelurdinak, onddoak, zizahoriak... bezalako perretxiko preziatuak aurkitzeko lekuri onenak. Hori dela eta, ez da harritzekoa onddotan edota gibelurdinetan aritzeko Euskal Herriko leku onentsuenak Nafarroako Pirinio inguruan izatea edota udaberriko zizak biltzeko inguru oparoenak Urduña, Urbasa edota Aralar izatea. Hori bai, kontuan izan behar da Euskal Herriko inguru gehienetan dagoela perretxikotan aritzeko txokoren bat edo beste. Aldiz, perretxikoak biltzeko pazientzia ere izan behar da, eta horregatik, agian, jende heldua aritzen da gehienbat lan horretan. Izan ere,

Euskal Herrian betidanik perretxikozale ugari izan bada ere, basora egindako txangoetan perretxiko bila dabiltzan «oso gazte gutxi» ikusten direla nabarmendu digu Juan Ignacio Iturriotz adituak. Gainera, ibiltzen direnak ere badakite zertan dabiltzan, antza ohizkoagoa baita Aralarren mongiak -aluzinazioak eragiten dituzten substantzia sikotropikoak dituzten perretxikoak- batzen dabiltzan gazteak ikustea, perretxi-



Hiltzaile berdea  
amanita phalloides  
Hilgarria



Hiltzaile konkorduna  
Amanita virosa  
Hilgarria



Zizahoria  
Cantharellus cibarius  
Jateko ona

ko jateko onak biltzen dituztenak ikustea baino...

### Biltzaile profesionalak

Gazteak perretxikotan aritzeko ohiturarik ez badute ere, badira perretxiko biltzea lanbidetzat dutenak ere. Izan ere, merkatuetan oso preziatuak izaten dira perretxikoak; aste honetan, adibidez, 2.700 pezetan saldu da onddo kilo Ordiziko Ferian, eta gibelurdinarena, berriz, 2.000 pezetan. Beraz, ez da batere harritagarria perretxiko biltzaile profesionalak izatea. Biltzaile horiek Espainiako estatu osotik ekartzen dituzte perretxikoak, lekuren batean perretxiko kolpea izan dela jakin bezain laster bertara abiatu eta kilokada mordo biltzen baitute. Ondoren, kamioi isotermikoetan Euskal Herrira ekartzen dituzte. Hala, baserritar batek merkatuko bere postuan bildutako 2, 5 edo 10 perretxiko kilo saldu baditzake ere, ferietan izaten diren saltzaileak ehunka kilo perretxiko biltzen dituzten profesionalak izaten dira normalean.

• Asier Errasti •